

## **UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTAREN LABURPENA.**

2016ko ekainaren 28ko 10:00etan, Bilboko Ikerbasquen egoitzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzardea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: Agentziako zuzendaria Eva Ferreira andrea, Cristina de la Cruz Ayuso andrea, Eneritz Garro andrea, Alfonso Hernández jauna, Jörn Grünwald jauna, Joaquín Losada jauna eta César Arrese-Igor jauna.

Ezin etorria adierazi dute Aurelie Arcocha andreak, Gemma Espigares andreak eta Jean-Miche Uhaldeborde jaunak.

Unibasqen aldetik Aitor Zurimendi jauna (zuzendari laguntzailea) eta Eva Fdz. De Labastida andrea (ebaluazio arduraduna) bertaratu dira.

Gai-zerrenda:

1. Aurreko bileraren akta onartzea.  
**Onartu da akta.**
2. Lehendakariaren txostena.
3. Gradu eta Master tituluen egiaztapena berritzeko dokumentazioa onartzea.  
**Dokumentazioa onartu da.**
4. AUDIT batzorderako kideen izendapena onartzea.  
**Onartzen da.**
5. UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Ordainsari Osagarrien ebaluaziorako Batzardeetako kideen izendapena onartzea.  
**Proposatutako kideak baino gehiago behar dira.**
6. Irakasle eta Ikertzaileen Egiaztapenerako batzardeetako kideen izendapena onartzea.  
**Onartzen da.**
7. ENQAren jarraipen txostena.
8. Doktorego programen jarraipen protokoloa. Aurkezpena.
9. Irakasle eta Ikertzaileen Egiaztapenerako protokoloa. Aurkezpena.
10. Galderak eta eskaerak.